

**Bi hamarkadako gizarte-
aldaketa Euskal AEn denboraren
erabileraren bitartez. Denbora
Aurrekontuen Inkesta,
1993-2013. Laburpen dokumentua**

Monografikoaren koordinazioa: Matxalen Legarreta Iza
Datuen prozesamendua eta kudeaketa: Yolanda González-Rábago

Lanketa: **EUSTAT**
Euskal Estatistika Erakundea
Instituto Vasco de Estadística

Argitalpena: **EUSTAT**
Euskal Estatistika Erakundea
Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

© **Jabetza eskubideak**

Eustat, (Euskal AEko administrazioak), hemen argitaratu diren artikulu originalen jabetza eskubide guztiak dauzka, zeintzuk Creative Commons lizentziaren arabera kudeatuko diren.



Ale-kopurua: 500 ale
XI-2015

Inprimaketa eta koadernaketa: Composiciones Rali, S.A.

ISBN: 978-84-7749-486-7

Artikuluen edukia idazlearen erantzunkizuna da eta ez du nahitaez Eustat-en iritzia adieratzen.

Aurkezpena

Dokumentu hau izen bereko monografikoan oinarritzen da eta horren irudia ematen digu. Bertan Euskal AEn azken hogeitun urteotan gertatu diren gizarte-aldaketa garrantzitsuenen azterketa azaldu nahi izan dugu. Horretarako, Eustatek, 1993 eta 2013 urteen artean, bost urteko maiztasunez, egiten duen Denbora Aurrekontuen Inkestetako datuak aztertu eta interpretatu ditugu.

Unibertsitateko eta Eustateko analisten arteko lankidetzaren esparruaren barruan kokatzen da, eta UPV/EHUko, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko adituek hartu dute parte, baita Matía Fundazioko eta DESTATIS-Alemaniko Estatistika Institutukoek ere.

Denbora Aurrekontuei buruzko Inkestak (DAI) biztanleriaren eguneroko bizimoduari buruzko informazio exhaustiboa eskaintzen du, eguneroko denboraren erabileraren ikuspegitik; inkestak denbora nola banatzen den eguneroko jardueretan zenbatzen du.

Jarduera ezberdinetan emandako denborak modu sakonean aztertutako eta ikertutako izan dira. Beharrezkoa izan den kasuetan azterketen eremuak zabaldu ditugu eta horretarako DAAlaren emaitzak eta Eustatek egin dituen beste inkesta batzuetako datuak erkatu dira.

Nabarmendu behar da orain arte gutxi jorratu diren gaiak aztertu direla, hala nola jarduera mota ezberdinen aldiberekotasuna.

Azterlanaren xede den biztanleria 16 urte eta urte gehiagoko herritarrek osatzen dute. Bi salbuespen egon dira: 1) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiei (IKT) buruzko enplegu-datuetan, 10 eta 16 urte bitarteko herritarren jokatibidea ere kontuan hartu da; eta 2) Euskal AEn eta Europako beste herrialde batzuen artean analisi konparatiboa egiteko erabili diren datuetan 20 eta 74 urte bitarteko pertsonak ere aintzat hartu dira.

Honako hauek izan dira analisia egiteko erabili ditugun adierazle nagusiak:

- Batez besteko denbora partaideko: aztertu diren biztanleek jarduera zehatz batean ematen duten batez besteko denbora, betiere, jarduera hori egiten badute.
- Partaidetza-tasa: jarduera zehatz bat egiten duten pertsonen ehunekoa.
- Batez besteko gizarte-denbora: aztertu diren biztanleek, osotasunean hartuta, jarduera batean ematen duten batez besteko denbora. Aztertu den biz-

tanleria osoan jarduera bakoitzak zenbat pisu duen erakusten du, bai eta zenbat pisu duen gainerako jarduerekin erkatuta. Denbora-erabileraren adierazle egokia da, gainera, herrialdeen arteko eta biztanleria-taldeen arteko konparazioak egiteko aukera ematen duelako.

Laburpen dokumentu honek, monografikotik ateratzen diren ondorio esanguratsuenak bildu eta trinkotu egiten ditu eta aldi berean haren ikuspegi orokorra eskaintzen du. Dokumentu honen irakurketa monografikoren gai zabaltasunera hurbiltzeko bide bikaina da eta baita haren kapituluetan zehar dagoen edukien aberastasunaren gain begirada egokia.

Eskerrak eman nahi dizkiot Matxalen Legarreta Iza andreari (UPV/EHU), zeinak koordinazio lanak egin baititu, monografiko hau argitara dadin erakutsi duen interes eta dedikazioagatik. Aipatu behar dut, bestetik, Yolanda González-Rábago andreak (UPV/EHU) datuak prozesatzen eta kudeatzen egindako lana.

JOSU IRADI ARRIETA
Zuzendari nagusia

Denbora gizarte-bizitzaren azterketan

Denboraren soziologiari buruzko lan-ildoan txertatzen da DAI. Lan-ildo hori sortu zen modernitatearen hastapenetan, eta azken urteotan sendotu da, batez ere, estrategia bikoitzaren bitartez: batetik, *denboraren soziologizazioa*; eta, bestetik, *alderdi sozialaren temporalizazioa*. *Denboraren soziologizazioa* erakusten du gizarte-bizitzaren zehaztapenek denbora ulertzeko duten ezinbesteko eragina nola gertatzen den eta zenbaterainokoa den. *Alderdi sozialaren temporalizazioa* datza gizarte-ikerketan denbora-alderdiei eta -zehaztapenei garrantzi handiagoa emanez egitean. Bata eta bestea irudikaturik daude monografiko honetan. Ikerketa soziologiko baten emaitzak aztertu ditugu, honako hauek barne hartuta: batetik, denboraren zehaztapen sozialak, eta, bestetik, eguneroko gizarte-bizitzaren denbora-zehaztapenak. Horrenbestez, DAI denboraren soziologian erabilitako estrategia bikoitzaren emaitza da.

Neurketa-tresna hori garatzeko modu asko eta askotarikoak egon arren, azken urteotan *jarduera-egunkarien*¹ bitartezko datuen ekoizpena orokortu da. Datuak ekoiztu ondoren, kodifikatu, eta ordenatu egiten dira kategoria finko batzuetan. Azkenean, *jarduera-zerrenda*² osatzen da. Denboran zehar eta geografia-esparrukako erka daitezkeen estatistikak sortzeko lana dela eta, aurrerapen handiak egin dira metodologiak nazioartean bateratzeko. Adibide egokia da Eurostatek 2000. urtean onartu zuen gida. Gida horretan inkestak-eredu estandarizatu bat (*jarduera-egunkariaren* formatuaren arabera) eta *jarduera-zerrenda* bateratua ezarrita daude. Gidalerro horiei jarraituta, zenbait herrialdetan denboraren erabilerari eta banaketari buruzko datuak ekoiztu, eta erkidego zientifikoaren eta, orokorrean, herritarren eskura jarri dira, Eurostaten webguneari bitartez³. Datu horiek 2011n argitaratu ziren. 20 eta 74 urte bitarteko biztanleriari buruzkoak dira, eta honako herrialde hauek konputatu hartu dira: Belgika, Bulgaria, Alemania, Estonia, Espainia, Frantzia, Italia, Letonia, Lituania, Polonia, Eslovenia, Finlandia, Erresuma Batua, Norvegia. 2003tik aurrera, Eustatek ere Eurostaten gidalerroei jarraitu die. Izan ere, Eustaten datuak, urte horren ostekoak, nazioarteko konparagarritasunaren irizpideen arabera dira.

¹ Eustatek erabili duen *jarduera-egunkaria* irakurgai dago Eustaten webgunean: http://www.eustat.eus/document/datos/cuestionarios/cues_EPT_B1_2013.pdf

² Eustatek erabili duen *jarduera-zerrenda* irakurgai dago Eustaten webgunean: http://eu.eustat.eus/ci_ci/estadisticas/tema_173/opt_0/tipo_9/temas.html#axzz3n97pBtmv

³ Eurostat, Time Use Survey, collection round 2000: <http://ec.europa.eu/eurostat/data/database>

Euskal AEn egoera Europako testuinguruan

Europako datuak aztertzen hasiz gero, berehala ikusten da eguna eta astea egituratzeko moduak, orokorrean, antzekoak direla herrialde guztietan. Batez besteko egun batean, denboraren erdia behar fisiologikoak asetzen ematen da; laurdena lanean (lan ordaindua eta lan ordaindu gabea) eta prestakuntzan ematen da; eta beste laurden bat baino zertxobait gutxiago aisian eta gizarte-bizitzan. Gainerako denbora joan-etorrietan ematen da. Era berean, funtsean, astelehenetik ostiralera, denbora gehiago ematen da lan ordainduan; eta asteburuan aisian, gizarte-bizitzan eta behar fisiologikoetan. Etxeko lanetan, familian eta joan-etorrietan emandako denboraren asteko erritmoa bestelakoa da Europako herrialdeetan. Euskal AEn asteburuetan ematen da denbora gehiago jarduera horietan. Arreta handiagoz aztertzen badugu, nabarmentzeko alde batzuk aurkituko ditugu.

Frantziarekin eta Bulgariarekin batera, Euskal AE da behar fisiologikoetan denbora gehien ematen duena, batez ere, loaldiari eta otorduei dagokionez (joera horretan aldentzen da Espainiako estatuko joeratik, osotasunean hartuta). Herrialde baltikoak dira lanean denbora gehien ematen dutenak (lan ordainduan eta ordaindu gabean). Halaber, herrialde horiek dira aisian eta gizarte-bizitzan denbora gutxien ematen dutenak. Euskal gizarte dago lanean denbora gutxien ematen duten gizarteen artean, baina ikasketetan emandako denboraren arabera saikapenean goiko postuetan dago. Egunero euskal herritarrek baino denbora gehiago ematen dute Espainiako estatuko herritarrek lanean. Aisian emandako denbora era antzekoan banatzen da azertu diren herrialde guztietan: oro har, aisia sedentarioan eta hedabideen kontsumoan ematen da denbora gehien; bigarrenik, gizarte-bizitzarekin lotutako jardueretan; hirugarrenik, jarduera fisikoetan eta kirolean; eta, azkenik, IKTen erabileran. Jarduera fisikoetan eta kirolean emandako denboran euskal gizarte gailentzen da, denbora gehien ematen duena delako; gizarte-bizitzan baino denbora gehiago ematen dute horretan euskal herritarrek. Europako herrialdeetan egunero 60 minutu eta 90 minutu bitartean ematen da joan-etorrietan; kontuan hartzeko moduko kopurua. Euskal AE eta Espainiako estatua daude joan-etorrietan denbora gutxien ematen duten herrialdeen artean. Esandakoa honako grafiko honetan erakusten da.

Denboraren banaketa generoaren arabera aztertuta, hiru herrialde-multzo bereizi ditugu, herrialde horietan dauden desberdintasunei erreparatuta. Genero-desberdintasunen kopuru handiena duen herrialde-multzoan Euskal AE dago, Italiarekin eta Espainiako estatuarekin batera. Desberdintasunak agertzen dira emakumeek eta gizonek etxeko eta familia-lanetan ematen duten denboran, batik bat. Herrialde horietan ongizate-estatua familia-eredukoa, dago. Gizonek baino hiru aldiz denbora gehiago ematen dute emakumeek etxeko eta familia-lanetan; bestalde, gizonek ekoizpen- eta merkatu-eremuan ematen duten denboraren erdia ematen dute emakumeek. Bigarren multzoan daude herrialde baltikoak eta Ekialdeko Europakoak (Europako Batasunean duela gutxi sartu direnak). Herrialde horien eredia sozialismoaren ostekoa da, eta gizonek baino bi aldiz denbora gehiago ematen dute emakumeek etxeko eta zaintza-lanetan; lan ordainduan gizonek baino % 44 edo % 27 denbora gutxiago ematen dute emakumeek. Iparraldeko eta Erdialdeko Europako herrialdeek osatzen dute hirugarren multzoa. Multzo horretako herrialde batzuek ongizate-estatuaren eredu korporatiboa dute (Frantzia eta Alemania), eta beste batzuek (eskandinaviar herrialdeak) sozialdemokratak dira. Oro har, berdintasun-maila handiena dute. Hala ere, lan ordainduari dagokionez, desberdintasunak bigarren multzoko herrialdeen baino handiagoak dira hirugarren multzoko herrialdeetan, kasu batzuetan.

| | Behar fisiologikoak | Lan ordaindua | Prestakuntza | Etxeko eta zaintza-lanak | Aisia eta gizarte-bizitza | Joan-etorriak | Zehaztu gabeko denbora |
|----------------|---------------------|---------------|--------------|--------------------------|---------------------------|---------------|------------------------|
| Belgika | 10:58 | 2:29 | 0:14 | 3:20 | 5:31 | 1:26 | 0:01 |
| Bulgaria | 11:45 | 3:01 | 0:05 | 3:53 | 4:15 | 0:59 | 0:02 |
| Alemania | 10:49 | 2:41 | 0:13 | 3:20 | 5:28 | 1:23 | 0:05 |
| Estonia | 10:33 | 3:42 | 0:07 | 3:50 | 4:38 | 1:07 | 0:04 |
| Espainia | 11:08 | 3:13 | 0:19 | 3:17 | 4:51 | 1:10 | 0:02 |
| Frantzia | 11:49 | 3:01 | 0:15 | 3:31 | 4:24 | 0:58 | 0:02 |
| Italia | 11:14 | 3:02 | 0:12 | 3:30 | 4:35 | 1:24 | 0:03 |
| Letonia | 10:49 | 4:11 | 0:10 | 2:58 | 4:25 | 1:24 | 0:02 |
| Lituania | 10:55 | 4:05 | 0:10 | 3:25 | 4:13 | 1:09 | 0:03 |
| Polonia | 10:54 | 3:06 | 0:14 | 3:36 | 4:55 | 1:10 | 0:05 |
| Eslovenia | 10:31 | 3:17 | 0:17 | 3:49 | 4:59 | 1:06 | 0:02 |
| Finlandia | 10:31 | 3:09 | 0:15 | 3:08 | 5:36 | 1:09 | 0:12 |
| Erresuma Batua | 10:33 | 3:16 | 0:09 | 3:18 | 5:08 | 1:27 | 0:09 |
| Norvegia | 10:16 | 3:21 | 0:14 | 3:04 | 5:46 | 1:16 | 0:03 |
| Euskal AE | 11:42 | 3:11 | 0:25 | 2:46 | 4:42 | 1:10 | 0:04 |

Iturria: geuk egina, Time Use Survey-collection round 2000 (Eurostat, 2011) eta Denbora Aurrekontuen Inkesta (Eustat, 2003) oinarri hartuta.


Adinaren arabera denboraren banaketa aintzat hartzen badira, ikuspegi global batetik ikusten da bizitza-zikloaren teoriak berresten direla. Horren arabera, pertsonen bizitzan hiru fase daude, eta haietako bakoitza jarduera batekin lotzen da: gaztaroa ikasketekin; helduaroa lan-merkatuarekin; zahartzaroa erretiroarekin, aisiarekin eta gizarte-bizitzarekin. Hori horrela, lau adin-talde (20-24, 25-44, 45-64, 65-74) aintzat hartzen baditugu, oro har, antzekoa da herrialde guztietako joera. Behar fisiologikoetan emandako denbora erdiko adin-tarteetan baino handiagoa da lehen eta azken adin-tarteetan. Lan ordainduan alderantzizko joera dago: erdiko adin-tarteetan nabarmen handitzen da, eta azken tartean txikiago egiten da. Zenbat eta urte gehiago izan, orduan eta denbora gutxiago ematen da prestakuntzan eta joan-etorrietan; batez ere, 25-44 urtetik gorako adin-taldeetan. Etxeko eta familia-lanean emandako denbora adin-tarte horretatik aurrera ere handitzen da, batik bat. Aisian eta gizarte-bizitzan emandako denborari dagokionez, U motako joera gailentzen da: bizitza-zikloaren lehenengo eta azken etapetan, 20-24 eta 64-75 urte bitartean, handiagoa da denbora-kopuru hori. Hala ere, arreta handiagok aztertuz gero, ñabardura garrantzitsuak aurkituko ditugu eta bizitza-zikloaren teoriak nolabait zalantzan jartzen dira. Alde batetik, lan ordainduan emandako denborari dagokionez, herrialde batzuetako (Alemania, Erresuma Batua, Estonia, Letonia eta Lituania) herritarrak goiz sartzen dira lan-merkatuan; eta beste herrialde batzuetan (Polonia eta Eslovenia) handia da erretiro-adinean (65-74 urte) lan ordainduan ematen den denbora-kopurua. Beste alde batetik, etxeko eta familia-lanean emandako denbora nabarmen handitzen da 25-44 urtetik gorako adin-taldeetan, eta ez da eteten adin handieneko pertsonen artean

ere. Azkenik, aisiari eta bizitza sozialari dagokienez, Lanaren Zama Globala (lan ordaindua eta etxeke eta familia-lana barne hartzen ditu) aintzat hartuz gero, herrialde batzuetan (Bulgaria, Lituania) agerikoa da pertsona helduenek aisian eta gizarte-bizitzan baino denbora gehiago ematen dutela lanean; eta, beste batzuetan, ordea, orekatuagoa dela (Estonia, Letonia eta Eslovenia). Euskal AE nabarmentzen da etxeke eta familia-esferan pertsona gazteagoek ematen duten denbora-kopuru txikiena bertan jaso delako. Ziur asko, hala da pertsonen eman-tzipazio-adina eta lehen seme-alaba izateko adina igro delako.

Egunaren eta astearen egitura: bilakaera orokorra

Aipatu berri ditugun datuak 2000. urteari buruzkoak (Euskal AEn kasuan, 2003. urteari buruzkoak) izan arren, luzetara aztertzen baditugu, eguneko denbora-erabilera eta banaketa euskal gizartean nola bilakatu diren behatu ahal izango dugu. Handi-handika, denboraren eta astearen egiturak antzekoak dira aztertu dugun hogeituroko aldian. Aipatu berri ditugun joera orokorrek jarraitu egiten dute. Zehaztasun handiagoz aztertuta, ordea, batez besteko egun bati erreparatuta, 2013an baino denbora gehiago ematen zen 1993an behar fisiologikoak asetzen (ordu erdi), aisia aktiboan eta kirolean (18 minutu), joan-etorrietan (ordu laurden bat) eta etxekeak zaintzen (10 minutu). Bestalde, 1993an denbora gutxiago ematen zen aisia pasiboan (8 minutu), etxeke lanetan (ordu laurden bat), lan ordainduan eta prestakuntzan (21 minutu) eta gizarte-bizitzan (26 minutu). Baina bilakaera hori ez da beti mailaz mailakoa izan, ezta egonkorra ere: 1993. eta 2003. urte artean gora egin zuen lan ordainduan emandako denborak; 2003. eta 2008. urte artean egonkor jarraitu zuen; eta 2008tik aurrera, nabarmen jaitsi da. Ziur asko, azken beharakada horretan zerikusia handia izan du diru-krisiak lan-merkatuaren egitura eta dinamiketan izan duen eraginak. Gizarte-bizitzan emandako denborak behera egin zuen 1993. eta 2008. urte artean; dena den, aztertu diren azken bost urteetan gora egin du (hasierako borneetara heldu ez bada ere). Aisia pasiboan eta etxeke lanetan emandako denborak behera egin du denbora-tarte berean, eta azken urteotan egonkor jarraitu du. Honako grafiko honetan jaso dira arestian aipatu diren datuak.

1. GRAFIKOA. Batez besteko gizarte-denbora (oo:mm) jarduera-multzo handietan. Euskal AE. 1993-2013



2. TAULA. Batez besteko gizarte-denbora (oo:mm) jarduera-multzoko handietan, asteko egunaren arabera. Euskal AE. 1993-2013

| | | 1993 | 1998 | 2003 | 2008 | 2013 | Aldea 1993-2013 |
|--------------------------------|--------------|-------|-------|-------|-------|-------|--------------------|
| Behar fisiologikoak | Lanegunetan | 11:07 | 11:14 | 11:28 | 11:13 | 11:31 | 0:24 |
| | Ostiraletan | 10:58 | 11 | 11:21 | 11:19 | 11:42 | 0:44 |
| | Larunbatetan | 12:01 | 12:27 | 12:38 | 12:36 | 12:45 | 0:44 |
| | Igandeetan | 12:27 | 12:34 | 12:57 | 12:57 | 13:01 | 0:34 |
| Lan ordaindua eta prestakuntza | Lanegunetan | 3:55 | 4:10 | 4:25 | 4:26 | 3:37 | -0:18 |
| | Ostiraletan | 3:54 | 4:00 | 3:57 | 4:03 | 3:16 | -0:38 |
| | Larunbatetan | 1:39 | 1:41 | 1:21 | 1:14 | 1:04 | -0:35 |
| | Igandeetan | 0:55 | 1:03 | 0:42 | 0:41 | 0:49 | -0:06 |
| Etxeko lanak | Lanegunetan | 2:49 | 2:28 | 2:23 | 2:25 | 2:24 | -0:25 |
| | Ostiraletan | 3:04 | 2:54 | 2:28 | 2:24 | 2:23 | -0:41 |
| | Larunbatetan | 2:30 | 2:16 | 2:34 | 2:32 | 2:39 | 0:09 |
| | Igandeetan | 1:55 | 1:49 | 2:07 | 2:13 | 2:11 | 0:16 |
| Etxeko pertsonen zaintza | Lanegunetan | 0:19 | 0:21 | 0:22 | 0:29 | 0:29 | 0:10 |
| | Ostiraletan | 0:24 | 0:23 | 0:23 | 0:27 | 0:29 | 0:05 |
| | Larunbatetan | 0:15 | 0:16 | 0:17 | 0:27 | 0:27 | 0:12 |
| | Igandeetan | 0:16 | 0:17 | 0:20 | 0:24 | 0:31 | 0:15 |
| Gizarte-bizitza | Lanegunetan | 0:49 | 0:42 | 0:41 | 0:24 | 0:35 | -0:14 |
| | Ostiraletan | 0:55 | 0:50 | 0:53 | 0:34 | 0:41 | -0:14 |
| | Larunbatetan | 1:51 | 1:46 | 1:26 | 1:04 | 1:02 | -0:49 |
| | Igandeetan | 2:07 | 1:57 | 1:42 | 1:13 | 1:07 | -1:00 |
| Aisia aktiboa eta kirolak | Lanegunetan | 1:01 | 1:06 | 1:03 | 1:11 | 1:19 | 0:18 |
| | Ostiraletan | 1:00 | 1:04 | 1:14 | 1:15 | 1:24 | 0:24 |
| | Larunbatetan | 1:24 | 1:25 | 1:44 | 1:42 | 1:47 | 0:23 |
| | Igandeetan | 1:37 | 1:36 | 1:49 | 1:48 | 1:51 | 0:14 |
| Aisia pasiboa | Lanegunetan | 2:58 | 2:46 | 2:27 | 2:43 | 2:50 | -0:08 |
| | Ostiraletan | 2:34 | 2:33 | 2:29 | 2:46 | 2:45 | 0:11 |
| | Larunbatetan | 3:25 | 3:02 | 2:56 | 3:21 | 3:08 | -0:17 |
| | Igandeetan | 3:43 | 3:34 | 3:21 | 3:50 | 3:34 | -0:09 |
| Joan-etorriak | Lanegunetan | 0:57 | 1:11 | 1:10 | 1:09 | 1:15 | 0:18 |
| | Ostiraletan | 1:07 | 1:14 | 1:14 | 1:13 | 1:20 | 0:13 |
| | Larunbatetan | 0:54 | 1:06 | 1:02 | 1:04 | 1:09 | 0:15 |
| | Igandeetan | 0:55 | 1:09 | 1:02 | 0:53 | 0:59 | 0:04 |

Iturria: geuk egina, Eustaten Denbora Aurrekontuen Inkesta (1993-2013) oinarri hartuta.

Asteko erritmoari dagokionez, oro har, aztertu ditugun hogei urteetan, asteburuetan behar fisiologikoetan, aisian eta gizarte-bizitzan denbora gehiago eta

lanean (lan ordaindua eta etxeko eta familia-lana) eta joan-etorrietan denbora gutxiago emateko joerak jarraitu egin du. Joera hori alderantzizkoa da astelehenetik ostiralera. Etxeko lanari dagokionez, ordea, hauxe hauteman dugu: 2013ko asteko erritmoa duela hogeiturotekoa baino lasaiagoa da. Astelehenetik ostiralera behera egin du era nabarmenean; eta asteburuetan horretan emandako denborak gora egin du, baina neurri txikiagoan. Joan-etorrietan emandako denboran kontrakoa gertatu da, hau da, astelehenetik ostiralera eta asteburuetan joan-etorrietan emandako denboraren arteko aldea handiagoa da DAAlaren azken edizioan, DAAlaren lehenengo edizioan baino; batez ere, astelehenetik ostegunera, ostiralean eta larunbatean emandako denbora-kopuruarengatik. Honako taula honetan jaso dira datu horiek.

Oinarrizko behar fisiologikoak asetzen emandako denbora: lo egiten eta jaten

Behar fisiologikoak asetzeko egiten diren jardueren artean, denbora gehiena hartzen duten eta garrantzitsuentzat hartzen diren honako bi hauek azertu ditugu: lo egitea eta jatea.

Euskal AEn azertu dugun lo-ereduak erakusten du, oro har, euskal biztanleek ia bederatzi orduko loaldiak izaten dituztela egunero (8 ordu eta 52 minutu, 2013an; 1993an baino ia ordu laurden bat gehiago). Denbora hori, ordea, nabarmen aldatzen da, asteko eguna zein den, bai eta ezaugarri demografikoen eta sozialen arabera ere. Zehatzago esanda, lanegunetan baino denbora gehiago ematen da asteburuetan lo egiten; eta, adin-taldea, sexua, ikasketa-maila eta lan-egoera zein den, aldatu egiten da.

Sexuaren arabera, gizonek baino denbora gehiago ematen dute emakumeek lo egiten (emakumeek 8 ordu eta 55 minutu; eta gizonek 8 ordu eta 47 minutu). Hala ere, behar baino lo gutxiago egiteko maiztasuna txikiagoa da gizonengan. Adinari dagokionez, loaldiek U forma dute: loaldi luzeenak gazteenek eta, batez ere, adinduek egiten dituzte; tarteko adin-taldeetakoek, ordea, lo gutxiago egiten dute. Gizarte-mailari dagokionez, Euskal AEn ikasketa-maila zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta luzeagoa da loaldia. Eta, lan-egoeraren arabera, batez ere, gizoni dagokionez, landunek baino denbora gehiago ematen dute langabetuek lo egiten.

Eguneko erritmoei dagokionez, biztanle gehienak gauerditik goizeko zortzietara lo egoten dira, batik bat goizeko ordu bietatik seietara, tarte horretan hamar lagunetik bederatzi baino gehiago lo baitago. Halaber, arratsaldeko hiruretatik bostetara siesta egiten duten biztanleen ehuneko handia da: arratsaldeko lauretan gizonen % 21 eta emakumeen % 14 lo egoten da. Gizonen, batez beste, egunero 30 minutu ematen dituzte siestan eta emakumeek 24 minutu.

Loaldia 1993tik 2013ra nola aldatu den aztertuz gero, agerikoa da emakumeek eta gizonen denbora gehiago ematen dutela lo egiten. Dena den, azken kasuan, estandarizatutako datuen arabera, loaldia luzatu da, biztanleria zahartu baita⁴.

⁴ Adinaren eragina dela eta (Euskal AEn biztanle adinduek gero eta pisu handiagoa dute, eta hori loaldiekin lotuta dago), behar izan dugun kasuetan adinaren arabera estandarizatu ditugu analisiak.

Era berean, loaldi bereziki txikiak egiten dituzten pertsonen ehunekoak ez dira nabarmen aldatu.

Biztanle guztiek, oro har, 2 ordu eta 12 minutu ematen dituzte jaten eta edaten (etxean edo kanpoan); hau da, eguneko denboraren % 9,2. Gure ingurunean, gainera, jateko partaidetza-tasa % 100 da. Euskal AEko biztanle guztiek gutxienez egunearan behin jaten dute. DAiko datuek erakusten dute jateko jardueraren inguruan bi joera mota daudela: behar fisiologikoa asetzea, hots, organismoa elikatzea; eta, beste pertsona batzuekin elkartzea. Lehen motakoak antolatzen dira hiru otordu nagusiren arabera: gosaria, bazkaria eta afaria. Euskal herritarrek jaten ematen duten denboraren % 75 otordu horietan ematen dute. Gizarte-talde guztiek garrantzitsutzat jotzen dituzte hiru otordu horiek. Otordu horiek, gehienbat, etxean bertan eta familiarekin batera egiten dira; afaria, batik bat.

Funtsezkoa den “*hiruko sekuentzia*” horrekin batera, bigarren mailako bi otordu ere badaude: janurrekoa eta askaria. Biztanleen ehuneko txiki samarrak egiten ditu bi otordu horiek, eta egiten ari den jardueran atsedena hartzeko ere egiten ditu. Hala ere, otordu bi horiek egunero hartzen duten batez besteko denbora ez da garrantzitsua: jaten emandako denboraren % 3 baino ez da.

Gainerako batez besteko gizarte-denboraren % 22 otordu sozialagoetarako erabiltzen da (28 minutu). Horren barne daude, besteak beste, honako hauek: “*kafea hartzea*”; “*zerbait edatea edo jatea*” eta “*hamaiketako egitea*”. Horiek guztiak esparru publikoan egiten dira, jatetxean edo tabernan; eta ohikoagoak dira asteburuetan. Jarduera horiek aukera handiena ematen dute gizarte-taldeak bereizteko; izan ere, ia “*kultura-markatzaile*” bihurtu dira.

Jateko ekintzarekin batera, sukaldean egiten den lanean emandako denbora ere azertu dugu. Denbora hori etxeko lanen zati da, eta oinarrizko bi zeregin barne hartzen ditu, hots, janaria prestatzea eta ontziteria antolatzea. Euskal herritar askok janaria prestatzen du: hamar pertsonatik seik prestatzen zuten 2013an. Denbora bera da azertu dugun ia aldi osoan: ordubete ingurukoa. Emakumeen eta gizonen parte-hartzea orekatuagoa izateko joera behatu den arren, datuek erakusten dute generoaren arabera roler jarraitu egiten dutela: emakumeen hiru laurdenek baino gehiagok janaria prestatzen dute, eta, gizonen kasuan, erdiek ere ez. Parte-hartze maila, gainera, desberdina da beste aldagai batzuk kontuan hartzen badira; lan egoera, adibidez. Baina sexuak bereizten du hoberen jarduera hori egiten den ala ez.

Sukaldean egiten den beste lan bat ontziteria biltzea eta harrikoa egitea da. Azken urteotan harrikoa egiten emandako denbora murriztu, eta ontziteria batzen emandakoa handitu egin da. Hau da, horrek adierazten du ontzi-garbigailuaren erabilera orokortu dela. Hala ere, ontziteria batzen eta harrikoa egiten emandako denborak egonkor jarraitu du, eta eguneko 18 minutu ingurukoa da, DAla egiteko kontuan hartu den hogeitau urteko aldirian. Lan hori gutxitan partekatzen da (euskal herritarren erdiak ez du egiten) eta, gehienbat, emakumeek egiten dute.

3. TAULA. Batez besteko gizarte-denbora (oo:mm) lo egitearekin eta jatearekin lotutako jardueretan. Euskal AE. 1993-2013

| | 1993 | 1998 | 2003 | 2008 | 2013 |
|-----------------------------|------|------|------|------|------|
| Lo egitea | 8:37 | 8:47 | 8:45 | 8:47 | 8:52 |
| Janaria prestatzea | 1:01 | 0:55 | 0:56 | 0:57 | 0:57 |
| Ontziteria garbitzea | 0:12 | 0:12 | 0:08 | 0:07 | 0:03 |
| Ontziteria batzea | 0:07 | 0:07 | 0:12 | 0:12 | 0:15 |
| Jatea eta edatea | 2:00 | 1:58 | 2:14 | 1:57 | 2:12 |

Iturria: geuk egina, Eustaten Denbora Aurrekontuen Inkesta (1993-2013) oinarri hartuta.

Lan ordainduan emandako denbora

Lan ordainduari dagokionez, DAiko datuak ez ezik, BJAko datuak ere aztertu ditugu. Inkesta bien aldi bereko azterketak informazio garrantzitsua jakinarazi du, lan ordainduetan emandako denbora-osaerari eta Euskal AEn izan duen bilakae-rari buruz. DAian lan ordainduari buruz jaso diren datuen barne hartu dira lanbide nagusia, bigarren mailakoa eta laneko atsedenaldiak. Datuek erakusten dute bi-garren mailako lana aztertutako aldi osoan ia ez dela garrantzitsua, eta pisua nabarmen jaisten dela 1998tik aurrera (4. taula). Hori dela eta, azterketa lan or-dainduan, emandako denborari buruzkoa da, berau osotasunean hartuta,.

Datuetatik ateratzen den lehenengo ondorio globalaren arabera, ekonomiaren zikloek eragina dute lan ordainduan emandako denbora-kopuruetan, bai eta enpleguak sortzeko eta suntsitzeko prozesuetan ere. Oro har, lan ordainduan emandako denbora, batez ere, 1993. eta 1998. urte artean handitu da (3 ordu eta 9 minututik 3 ordu eta 21 minutura). 2003tik 2008ra zifra horretatik gertu jarraitu du. Aztertu diren azken bost urteetan, ordea, nabarmen jaitsi da. Izan ere, 2013an izan zen 1993ko bolumena baino txikiagoa (2 ordu eta 48 minutu, hau da, hogeitaz urte lehenago baino 21 minutu gutxiago).

Merkatu-lana, batik bat, lanegunetan egiten da. Hala ere, DAiko datuak iraku-rrita, aztertutako bi hamarkadetan murriztu egin da asteko lanorduen kopurua: lanegunen lanaldia 8 minutu gutxiagotu da; ostiralekoa 18 minutu; larunbatekoa 13 minutu; eta igandekoak 5 minutu egin du gora. Oro har, asteburuak aurrera-tzeko eta luzatzeko joera hauteman da. BJAko datuek berresten dute asteko lanordu handiaren pisua jaitsi dela. Era berean, datuek erakusten dute lan-merkatuari buruzko desberdintasun batzuk (lurraldeen araberrakoa, adibidez) ez direla esanguratsuak, baina, beste batzuk (esaterako, generoari buruzkoak), ordea, garrantzitsuak direla, nahiz eta, denborak aurrera egin ahala, murriztuz doazela irudi. Hori dela eta, Euskal AEn 2013ko lan-merkatuan gutxiago gailen-tzen dira gizonak, 1993ko datuen aldean. Hala ere, emakumeek baino denbo-ra-kopuru handiagoak dituzte gizonak oraindik ere. 2013an, batez besteko egun batean, asteburuak eta jaiegunak kontuan hartuta, gizonen % 34,8k eta ema-kumeen % 26,5ek lan ordainduan ematen dute eguneko denbora-tarte bat. Era berean, kontuan hartzen baditugu okupazio horietan denbora ematen dutela esaten duten biztanleak eta denborarik ematen ez dutela esaten dutenak, egu-nero gizonen 2 ordu eta 44 minutu ematen dute okupazio horietan, eta emaku-meek ordubetea eta 50 minutu.

Aztertu dugun hogeituro urteko aldirian, ikasketak-mailaren araberrako biztanleria-sailkapenean ere aldiraketa esanguratsua gertatu da. Funtsean, goi-mailako ikasketak dituzten langileek pisu gehiago hartu dute, beraz, horrek pentsarazten digu Euskal AEn lan-polarizazioa gertatzen ari dela. Adinari dagokionez, datuek erakusten dute merkatu-lanetik erretiratzeko erabakia aurreratu dela, baina, baliteke krisiak joera hori aldiratu izana. Krisiaren ondorioz, adindun pertsona gehiago –emakumeak, batez ere– lan-merkatuara sartu da, eta lan-okupazioa du. Hala ere, BJAko datuek eta DAiko datuek erakusten dute krisiak bereziki eragin diela gazteenei.

Honako taula honetan erakusten dira lan ordainduari buruzko DAiko datuak:

4. TAULA. Batez besteko gizarte-denbora (oo:mm) lan ordainduan. Euskal AE. 1993-2013

| | 1993 | 1998 | 2003 | 2008 | 2013 |
|------------------------|------|------|------|------|------|
| Lanbide nagusia | 2:21 | 2:34 | 2:43 | 2:45 | 2:13 |
| Bigarren mailako lana | 0:10 | 0:03 | 0:05 | 0:02 | 0:03 |
| Laneko atsedendialdiak | 0:01 | 0:06 | 0:01 | 0:06 | 0:00 |
| Guztira | 2:32 | 2:43 | 2:49 | 2:53 | 2:16 |

Iturria: geuk egina, Eustaten Denbora Aurrekontuen Inkestan jasotako datuetan oinarrituta.

Etxeko eta zaintza-lanetan emandako denbora

Etxeko lanei dagokienez, DAiko datuen lehenengo azterketaren arabera, oro har, aztertu dugun hogeituro urteko aldirian, euskal herritarrek okupazio horietan egunero ematen duten denboraren pisu erlatiboak ordu laurden bat egin du behera: 1993an 2 ordu eta 40 minutu, eta 2013an 2 ordu eta 24 minutu. Bestalde, beherakada horretan agerikoa ez bada ere, gora egin du lan horietan denbora ematen duten pertsonen ehunekoak (1993an % 76,9 eta hogeituro urte geroago % 87,1). Eta, gorakada horrekin batera, behera egin du lan horiek benetan egiten dituzten pertsonen hori egiten emandako denborak (3 ordu eta 26 minutu 1993an, eta 2 ordu eta 45 minutu 2013an). Hori horrela, etxeko lanak herritarren artean gehiago partekatzen direla esan daiteke, gero eta pertsona gehiagok denbora-tarte bat ematen baitute lan horiek egiten. Beraz, lan horiek gain hartzen dituzten pertsonen denbora gutxiago ematen dute horretan. Dena den, arreta handiagoz aztertzen badugu, ñabardurak gehituko dizkiogu adierazpen horri.

Generoaren araberrako bilakaerari erreparatzen badiogu, emakumeen partaidetza-tasak jarduera horietan egonkor jarraitu du (aztertutako aldirian, % 90 ingurukoa izan da), baina gizonenak, ordea, 1993tik 2013ra, gora egin du ehuneko hogeituro puntu (% 59,1etik % 81,1era). Hala ere, oszilazio garrantzitsuak daude gizonen partaidetza-tasan: zortzi zenbakian bukatzen diren urteetan (1998an eta 2008an) gora egin du, eta hiru zenbakian bukatzen diren urteetan behera egin du (2003an eta 2013an). Lan horiek benetan egiten dituzten pertsonen lan horietan ematen duten denborari dagokionez, aztertu dugun hogeituro urteko aldirian beherakada egonkorra eta nabarmena hauteman dugu emakumeen tasetan (ordubete baino gehiago jaitsi da: 4 ordu eta 34 minutu 1993an, eta 3 ordu eta 23 minutu 2013an). Gizonen tasaren gorakada (ordu

laurden bat) ez da hain nabarmena, eta ez da egonkorra izan (ordubetea eta 45 minutu 1993an, eta ordubetea eta 59 minutu 2013an).

Era berean, datuek erakusten dute oraindik ere genero-desberdintasunak daukela etxeko lanen banaketan; bereziki, gizarte-talde batzuetan eta jarduera zehatz batzuetan. Adin handiagoko pertsonak eta lan-merkatuan aritzen ez direnek (langabetuak, erretiratuak eta lanaldi osoko etxeko amak) jarduera horietan ematen dute denbora-kopuru handiena, eta, kasu guztietan, gizonen tasa baino handiagoa da emakumeena. Ildo beretik, egunerokoak eta ohikoak diren lanetan (garbitzea, janaria prestatzea, arropa txukuntzea) gizonen parte-hartzea baino handiagoa da emakumeena.

Etxeko pertsonak zaintzeko lanari dagokionez, zehaztu behar da, aztertutako aldi osoan, euskal herritarrek horretan eman duten denbora-kopurua txikia (ordu erdi baino gutxiago) dela, gainerako jarduerak egiten emandako denborarekin erkatuta. Hala ere, gorakada nabarmena hauteman dugu: 1993an 19 minutu; eta 2013an 29 minutu. Igoera hori batez ere haurren zaintzan hauteman da, eta, beharbada, etxeetako adingabe kopurua igo izanagatik sortu da, ugalkortasuna areagotu egin baita. Horrez gain, agerian utzi da, urteak igaro ahala, 16-34 urte bitarteko taldean zaintza-lanen pisuak behera egin duela, eta pisua 35-59 urte bitarteko taldera eskualdatu dela; agian, hala da, seme-alabak edukitzeko adinak gora egin duelako. Gainera, hauxe ere hauteman da: 60 urte eta urte gehiagoko pertsonak denbora gehiago ematen dutela zaintza-lanetan, eta, bereziki, umeak zaintzen. Edonola ere, lan-egoera eta adina zein den alde batera utzita, emakumeak dira okupazio horietan denbora-kopuru handiena ematen dutenak, eta emakumeen inplikazioaren ehunekoa ere handiagoa da. Hala ere, gizonezko biztanlerian aldaketa batzuk gertatu dira, zaintza-lanei dagokionez, eta, bereziki, 2008tik aurrera.

2013ko datuak zehatz-mehatz aztertuta, agerikoa da familia motak eragin nabarmena daukala zaintzan emandako denboran. Seme-alabak dituzten familietan denbora gehiago ematen da zaintza-lanetan, orokorrean (eta, batez ere, haurren zaintzan), seme-alabarik ez duten familiekin alderatuta. Adineko pertsonen zaintzari dagokionez, bikoteak soilik osatutako familietako emakumeak dira denbora gehien ematen dutenak eta partaidetza handiena daukatenak zeregin horietan. Ziur asko, bikotekidea zaintzen duten emakume adinduen egoera izango da hori.

Honako taula honetan jaso dira etxeko eta zaintza-lanei buruzko datuak:

5. TAULA. Batez besteko gizarte-denbora (oo:mm) etxeko lanetan eta etxekoak zaintzen. Euskal AE. 1993-2013

| | 1993 | 1998 | 2003 | 2008 | 2013 |
|----------------------|------|------|------|------|------|
| Etxeko lanak | 2:40 | 2:25 | 2:23 | 2:24 | 2:24 |
| Haurren zaintza | 0:10 | 0:11 | 0:12 | 0:18 | 0:13 |
| Jolasak eta heziketa | 0:06 | 0:06 | 0:05 | 0:06 | 0:11 |
| Helduen zaintza | 0:01 | 0:04 | 0:04 | 0:05 | 0:05 |
| Guztira | 2:57 | 2:46 | 2:44 | 2:53 | 2:53 |

Euskal biztanleen artean, oro har, handitu egin da astialdia, 1993tik 2013ra: 1993an 4 ordu eta 16 minutu, eta 2013an 4 ordu eta 26 minutu. Aisiako jarduerak erritmo zehatza duten astean: astelehenetik ostiralera baino denbora gehiago ematen da asteburuetan. Emakumeek baino denbora gehiago ematen dute gizonek. Oro har, adin handiagoko biztanleek denbora gehiago ematen dute, baina, aisiako jarduera zehatzei erreparatzen badiegu, ñabardurak egin behar dira.

Oro har, euskal biztanleek 1993tik 2013ra aisia aktiboan eman duten denbora pixkanaka handitu da, guztira 19 minutu (6. taula). Aztertu ditugun hogeitaz arteen, astelehenetik ostiralera baino 30 minutu gehiago eman dira asteburuetan; eta emakumeek baino 20 minutu gehiago eman dute gizonek, batez beste. 1993. urteaz geroztik, gazteek aisian batez beste eman duten eguneko denborak nabarmen egin du gora (38 minutu). Aisia aktiboan egiten diren jarduerari erreparatuta, internet, ordenagailuak eta informatika-tresnak erabiltzen baino denbora gehiago eman da kirol-jardueretan, ibilaldietan eta txangoetan, osotasunean hartuta. Hala ere, urteak igaro ahala, kirolean baino denbora gehiago ematen da interneten.

Datuek erakutsi dute kirola eta ibilaldiak direla euskal herritarrek nahiago dituzten aisiako jarduerak. Hori horrela, ibilaldiak dira aisia aktiboan partaidetza-tasa handiena duten jarduerak: 2013an % 44,8koa izan zen, 1993tik aurrera ehuneko 0,8 puntu jaitsi den arren. Datuen arabera, egunero ordubete baino gehiago ematen da ibilaldiak egiten. Aldi berean, aztertu ditugun hogeitaz arteen, kirol-jarduerak 5,3 puntu egin dute gora. 2013an, tasa hori % 15,6 izan zen. Kirol-jardueretan emandako denbora pixkanaka igo da aztertu dugun aldiaren. Ibilaldietan eta txangoetan emandakoa, ordea, murriztu egin da (6. taula). Jarduera horietan ematen den denbora gehien baldintzatzen duten aldagaiak oraindik ere adina eta generoa dira.

IKTen erabilera aztertuta, internet gero eta garrantzitsuagoa da eguneroko bizitzan, eta agerikoa da euskal herritarrek horretan ematen duten denbora aintzat hartzen badugu. 2003tik aurrera hirukoiztu egin da (6. taula). Gorakada orokorra izan bada ere, datuek erakusten dute, biztanleen ezaugarri demografikoak eta sozialak zeintzuk diren, desberdintasunak daudela: emakumeek baino denbora gehiago ematen dute gizonek; pertsona helduek eta zaharrek baino denbora gehiago ematen dute gazteek; ikasketa-maila zenbat eta handiagoa izan, interneten emandako denbora orduan eta handiagoa da; ikasleak dira denbora gehien ematen dutenak; etxeko lanez arduratzen diren pertsonak dira denbora gutxien ematen dutenak. Ordenagailua aisiarako tresna gisa erabiltzeari buruzko datuek ez dute informazio esanguratsurik ematen, erabilera-tasa oso txikia delako (% 2 ingurukoa), eta euskal herritarrek horretan ematen duten denbora oso txikia delako (minutu eskasa). Zentzuzkoa da pentsatzea ordenagailua lan- edo ikasketa-tresna gisa erabiltzen dela. Parte-hartzea bideo-jokoetan ere txiki samarra da. Hala ere, argi dago bideo-jokoetan aritzen den batez besteko jokalariaireneko profila: gizona, gaztea eta ikaslea.

Honako taula honetan jaso dira aisia aktiboari buruzko datuak, jarduera osagarri zehatzen arabera banakatuta.

6. TAULA. B tez besteko gizarte-denbora (oo:mm) aisia aktiboko jardueretan. Euskal AEn 10 urte eta urte gehiagoko biztanleak. 2003-2013

| | 1993 | 1998 | 2003 | 2008 | 2013 |
|--------------------------------------|------|------|------|------|------|
| Kirol-jarduerak | 0:09 | 0:09 | 0:10 | 0:12 | 0:14 |
| Ibilaldiak, txangoak | 1:01 | 1:02 | 1:00 | 0:55 | 0:56 |
| Ordenagailuak eta informatika | - | - | 0:03 | 0:03 | 0:02 |
| Internet | - | - | 0:04 | 0:10 | 0:17 |
| Guztira | 1:10 | 1:11 | 1:17 | 1:20 | 1:29 |

Iturria: geuk egina, Eustaten Denbora Aurrekontuen Inkestan (1993-2013) jasotako datuak oinarri hartuta.

1993tik 2013ra euskal herritarrek aisia pasiboan emandako denborak beherakada txikia izan du: 3 ordu eta 6 minutu 1993an eta 2 ordu eta 59 minutu 2013an. Hala ere, aisia aktiboan emandako denbora baino askoz ere handiagoa da aisia pasiboan emandakoa. Edizio guztietan, batez beste, emakumeek baino 13 minutu gehiago eman dute gizonek, baina, denbora igaro ahala, murriztuz joan dira desberdintasun horiek. Halaber, nabarmentzekoa da pertsona gazteek eta helduek aisia pasiboan batez beste egunero ematen duten denborak 1993tik behera egin duela.

Zehatz-mehatz, euskal herritarrek denbora gehien ematen dute irakurtzen, telebista ikusten eta irratia entzuten; eta "jarduerarik ez" deritzon kategoria (hori da denbora gehien hartzen duen hurrengo kategoria) baina askoz ere handiagoa da beste kategoria horien denbora-tasa. Oro har, Denbora Aurrekontuen Inkestaren edizio guztietan jaso da Euskal AEn, batez beste, eguneko 2 ordu baino askoz ere denbora gehiago ematen dela irakurtzen, telebista ikusten eta irratia entzuten.

Telebistaren kontsumoak egonkor samar jarraitu du 1993tik aurrera. Idatzizko egunkarien eta irratia kontsumoa, ordea, nabarmen jaitsi da, parte-hartzea eta horretan emandako denbora murriztu direlako. Aztertu dugun hogeituro aldian, euskal herritarren % 80 inguruk egunero denbora-tarte bat eman du telebista ikusten. Oro har, egunero bi ordu eman dute horretan. Prentsa idatzia irakurtzen duten pertsonen ehunekoaren eta horretan emandako denboraren erdia, gutxi gorabehera, murriztu da: 1993an 12 minutu eta 2013an 6 minutu; 1993an % 20,6 eta 2013an % 9,8. Irratiaren kontsumo-tasa gehiago ere murriztu da: 1993an 7 minutu eta 2013an 2 minutu; 1993an % 9,4 eta 2013an % 3,5. Zehaztu behar da herritar askok telebista eta irratia ikusi edo entzun bitartean, beste jarduera batzuk ere egiten dituztela aldi berean. Horren harira, 1993an euskal herritarren erdiek (% 50,2) adierazi zuten bigarren mailako jarduera gisa entzuten zutela irratia. Hogeituro geroago, herritarren laurdenek (% 26,8) adierazi dute hori. Oro har, 1993an, irratia entzuten, bigarren mailako jarduera gisan, ematen zen denbora ordubete eta 10 minutu zen; eta 2013an, 29 minutu.

Euskal herritarrak ez dira maiz aritzen jokoetan edo arte-zaletasunetan, eta horretan ez da aldaketa esanguratsurik jaso: jokoetan zertxobait jaitsi da parte-hartzea; eta oszilazioak egon dira arte-jardueretan emandako denboran, batez ere, emakumeen kasuan. Aztertu diren urteetan gehienez ere euskal herritarren % 5ak hartu du parte jarduera mota horietan, baina, ikuskizuna zein den, aldakuntzak jaso dira parte-hartzean. Kirol-ikuskizunak ikustera joan den pertsona kopuruak bere horretan jarraitu du; zinemara joan den pertsona kopuruak, ordea, behera egin du.

Honako taula honetan jaso dira aisia pasiboa osatzen duten jarduera zehatzei buruzko datuak:

7. TAULA. Batez besteko gizarte-denbora (oo:mm) aisia pasiboko jardueretan. Euskal AE. 2003-2013

| | 1993 | 1998 | 2003 | 2008 | 2013 |
|---|------|------|------|------|------|
| Irakurtzea, telebista ikustea, irratia entzutea | 2:33 | 2:26 | 2:05 | 2:38 | 2:34 |
| Jarduerarik ez | 0:15 | 0:09 | 0:19 | 0:07 | 0:12 |
| Ikuskizunak | 0:06 | 0:05 | 0:05 | 0:04 | 0:04 |
| Jokoak | 0:12 | 0:14 | 0:08 | 0:07 | 0:06 |
| Zaletasun artistikoak eta bestelakoak | | | 0:02 | 0:02 | 0:03 |
| Guztira | 3:06 | 2:54 | 2:39 | 2:58 | 2:59 |

Iturria: geuk egina, Eustaten Denbora Aurrekontuen Inkestan (1993-2013) jasotako datuak oinarri hartuta.

Gizarte-bizitza aztertzen badugu, DALan aztertu diren gainerako jardueretan (zaintza-lanak alde batera utzita) emandako denbora baino askoz ere txikiagoa da gizarte-bizitzan eman dena. Gainera, datuek erakusten dute 1993tik aurrera ia ordu erdi egin duela behera: 1993an ordubetea eta 10 minutu; eta 2013an 44 minutu. Beherakada horrekin batera, behera egin du jarduera horietan denbora ematen duten pertsonen ehunekoak ere (1993ko tasa baino 10 puntu txikiagoa da 2013koa; % 47 ingurukoa, zehatz-mehatz). Eta jarduera horiek benetan egiten dituzten pertsonak denbora gutxiago ematen duten horretan (1993an baino ordu erdi gutxiago eman dute 2013an; zehazki, ordubetea eta 34 minutu).

Adina aintzat hartzen badugu, aztertu dugun hogeiturogei urteko aldian, 16 eta 34 urte bitarteko taldean jaso da beherakada handiena, honako hiru alderdi hauetan: jarduera horietan orokorrean emandako denboran (44 minutu gutxiago); jarduerak benetan egiten dituzten pertsonak batez beste emandako denboran (51 minutu gutxiago); eta jarduera horiek egiten dituzten pertsonen ehunekoan (ehuneko 11 puntu gutxiago). Sexuari dagokionez, datuek agerian uzten dute gizarte-bizitzan inbertitutako denboraren bilakaera paraleloa izan dela gizonen eta emakumeen kasuan, eta bi taldeetan antzeko beherakadak egon direla. Hala ere, beherakada handixeagoa izan da gizonen kasuan. Izan ere, sail historikoa-ren hasieran agerikoak ziren desberdintasun txikiak ia guztiz ezabatu dira Denbora Aurrekontuen Inkestaren azken edizioan: oro har, gizonak 1993an ordubete eta 16 minutu ematen zuten, eta 2013an 45 minutu; emakumeek 1993an ordubete eta 4 minutu ematen zuten, eta 2013an 44 minutu.

Gizarte-bizitzan inbertitzen den denbora gehien jaitsi da harreretan, irteeretan eta solasaldietan. Gizarte-elkarreragineko aukera teknologikoak eskuko telefonoaren bitartez zabaldu izanak ezin izan du konpentsatu aurrez aurreko elkarrreragina lehenesten duten soziabilitate-modu tradizionaletan inbertitutako denboraren murrizketa, eta, agian, horrek azaltzen du beherakada hori. Bestalde, egunean denbora gutxiago hartzen badute ere, erlijio-jardueretan emandako denborak eta herritarrek onginahi hutsez egiten duten jardueretan emandako denborak bere horretan jarraitu du.

Honako taula honetan bildu dira gizarte-bizitzari buruzko jarduera zehatzen gaineko datuak:

8. TAULA. Batez besteko gizarte-denbora (oo:mm) gizarte-bizitzako jardueretan. Euskal AE, 1993-2013

| | 1993 | 1998 | 2003 | 2008 | 2009 |
|---|------|------|------|------|------|
| Harrerak, irteerak eta solasaldiak | 1:00 | 0:55 | 0:53 | 0:34 | 0:37 |
| Erljio-partaidetza | 0:04 | 0:04 | 0:03 | 0:02 | 0:02 |
| Herritarren parte-hartzea | 0:07 | 0:05 | 0:03 | 0:02 | 0:06 |
| Guztira | 1:11 | 1:04 | 0:59 | 0:38 | 0:45 |

Iturria: geuk egina, Eustaten Denbora Aurrekontuen Inkestan (1993-2013) jasotako datuak oinarri hartuta.

Denbora eta generoa

DAIko datuak genero-ikuspegitik aztertzen badira, oro har, hautematen da aztertutako aldiari aurrerapen nabarmenak egin direla emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko helburuan. Hala ere, generoaren arabera ohiko rolet jarraitu egiten dute euskal herritarrek denbora egunero erabiltzen eta banatzen duten moduetan. Hori horrela, lanaren sexu-banaketa oraindik ere baldintzatzen du emakumeek eta gizonek beren denbora kudeatzeko modua. Halaber, banaketa horrek eguneroko bizitzaren arloetan (esaterako, aisia eta gizarte-bizitza) parte hartzeko aukerak ere mugatzen ditu. Desberdintasun handienak etxeko eta familiako eremuan eta merkatu eta ekoizpen-eremuan hauteman ditugu.

Hala ere, aldaketak behatu dira denboraren erabileran: emakumeek duela hogeitun urte baino denbora gehiago eman zuten 2013an lan-merkatuan, eta denbora gutxiago eman zuten etxeko lanetan eta zaintza-lanetan. Gizonek, bestalde, denbora gutxiago eman zuten lan ordainduan (batez ere azken aldiari, krisia dela eta); eta denbora gehiago eman zuten etxeko eta familiako lanetan. Hori horrela, emakumeek 34 minutu gehiago eman dute lan ordainduan; eta ordu-betea eta 18 minutu gutxiago etxeko eta zaintza-lanetan. Gizonek 59 minutu gutxiago eman dute lan ordainduan, eta 18 minutu gehiago eman dute etxeko eta familiako lanetan (9. taulan). Genero-haustura kasu bietan txikiagotu da, batez ere, etxeko lanei dagokienez: 1993an gizonek baino lau aldiz denbora gehiago ematen zuten emakumeek etxeko lanetan; eta 2013an, ordea, denbora-kopuru bikoitza ematen zuten. Etxeko pertsonak zaintzeari dagokienez,

genero-haustura txikiagoa da, eta ez da hain mailaz mailakoa izan (1998an txikiagotu zen, eta, 2003an, ordea, handitu egin zen). Lan ordaindua kontuan hartzen badugu, eremu horretan ere nabarmenak dira berdintasuna lortzeko egin diren aurrerapenak: 1993an gizonak ematen zuten denboraren erdia ematen zuten emakumeek lan ordainduan; eta 2013an, ordea, aldea ez da heren batera iristen.

Erabateko Lan Zama (lan ordaindua, ordaindu gabea, etxeko eta familiako lanak eta borondatezko lanak barne hartuta) kontuan hartzen badugu, datuek erakusten dute gizonak baino zama gehiago hartzen dutela emakumeek, nahiz eta aztertu ditugun hogei urteetan emakumeen eta gizonen guztizkoek behera egin duten, eta sexuen arteko distantzia txikiagotu den. Zehazki: 1993an, emakumeek 6 ordu eta 13 minutu hartzen zuten gain, eta gizonak 5 ordu eta 6 minutu (beraz, emakumeek ordubete eta 7 minutu gehiago gain hartzen zuten); 2013an, emakumeek 5 ordu eta 39 minutu hartzen zuten gain, eta gizonak 4 ordu eta 48 minutu (emakumeek 51 minutu gehiago egiten zuten). Lanaren zama osoa gain hartzearekin lotutako desberdintasun handiena 60 urte eta urte gehiagoko herritarren artean behatu dugu. Dena den, adin horretako emakumeen taldean denbora murrizteko joera hauteman da. Aztertu dugun aldiaren gazteen artean handitu da lan zama. Gainera, emakumeen kasuan, ikasketa-maila zenbat eta altuagoa izan, zama orduan eta handiagoa da.

Nork bere burua zaintzeko gordetzen duen denborari dagokionez, gizonak baino denbora gutxiago hartzen dute emakumeek, ikasketa-maila eta adina alde batera utzita. Dena den, nabarmenezkoa da honako aldaketa hau: 1993an emakumeen ikasketa-maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta denbora propio gehiago hartzen zuten; azken urteotan, aldiz, bai emakumeen, bai gizonen kasuan, ikasketa-maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta denbora propio gutxiago hartzen dute. Adinari dagokionez, aztertu dugun aldiaren 35 eta 59 urte bitarteko emakumeek egindako lanordu bakoitzeko ordu erdi baino gutxiago hartu dute erabilera askeko denbora gisa, beharbada, lan-merkatuan parte-hartze handiagoa izan arren, etxeko eta familiako lanak ere gain hartzen jarraitu dutelako. Egoera horrek ondorioak izaten ditu eguneroko bizitzaren beste arlo batzuetan, hala nola, gizarte-bizitzan, aisian edo joan-etorrietan.

Oro har, behera egin du euskal herritarrek gizarte-bizitzan ematen duten denborak, eta hala da emakumeen eta gizonen kasuan. Hortaz, genero-haustura txikiagoa da arlo horretan. Hala eta guztiz ere, barne hartzen diren okupazio zehatzak aztertuta, parte-hartze soziopolitikoaren eta borondatezko lanaren banaketa ohiko genero-rolen arabera dela ikusi dugu: gizonak parte-hartze handiagoa dute *erakundeetan*, onginaldi hutsezko jardueretan eta lanetan; eta emakumeen parte-hartzea handiagoa da *erakundeen bitarteko* onginaldi hutsezko lanetan.

Gizonak onginaldi hutsez egiten dituzten jarduerak, besteak beste, honako hauek dira: alderdi politikoetako kide izatea, sindikatu etako kide izatea, mitinetan parte hartzea eta abarretan; bai eta enpresako eta beste erakunde batzuetako kontseiluetan parte hartzea ere. Bestalde, *erakundeetan* egiten duten lana kudeaketarekin lotuta dago (kudeaketa-lana, adibidez). Bestalde, emakumeek onginaldi hutsez egiten duten lana *erakundeen bitarteko* da, eta asistentziarekin lotuta dago. Hein handi batean, beste pertsona batzuek arduratzen dira, eta pertsona horiek zaintzen dituzte; beraz, lan horrek lotura handiagoa du emakumei esleitu ohi zaien zaintzaile-rolarekin.

Aisiari dagokionez, oro har, bai emakumeek, bai gizonek handitu egin dute aisia aktiboan emandako denbora. Batez ere, IKTekin lotutako denborak egin du gora (gizonek gehiago erabiltzen dituzte). Aisia pasiboari dagokionez, emakumeen tasa handitu egin da, eta gizonena txikiagotu. Joan-etorrietan denbora gehiago ematen dute emakumeek eta gizonek. Hala ere, adinari erreparatzen badiogu, oraindik ere desberdintasunak daude, eta adindun emakumeak dira joan-etorrietan denbora gutxien ematen dutenak.

Honako taula honetan jaso dira jarduera nagusietan emandako denborari buruzko datuak, sexuaren arabera banatuta.

9. TAULA. Batez besteko gizarte-denbora (oo:mm) jarduera-multzo handietan, sexuaren arabera banatuta. Euskal AE. 1993-2013

| | 1993 | | 1998 | | 2003 | | 2008 | | 2013 | |
|--------------------------------|--------|----------|--------|----------|--------|----------|--------|----------|--------|----------|
| | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea | Gizona | Emakumea |
| Behar fisiologikoak | 11:24 | 11:27 | 11:03 | 11:37 | 11:51 | 11:48 | 11:43 | 11:38 | 11:53 | 11:59 |
| Lan ordaindua eta prestakuntza | 4:15 | 2:04 | 4:16 | 2:26 | 4:14 | 2:35 | 4:00 | 2:49 | 3:16 | 2:22 |
| Etxeko lanak | 1:03 | 4:16 | 1:10 | 3:37 | 1:10 | 3:31 | 1:19 | 3:25 | 1:37 | 3:08 |
| Etxeko pertsonen zaintza | 0:12 | 0:27 | 0:14 | 0:26 | 0:12 | 0:29 | 0:19 | 0:36 | 0:21 | 0:36 |
| Gizarte-bizitza | 1:16 | 1:04 | 1:08 | 0:58 | 1:04 | 0:52 | 0:41 | 0:36 | 0:45 | 0:44 |
| Aisia aktiboa eta kirolak | 1:22 | 0:58 | 1:23 | 1:02 | 1:27 | 1:08 | 1:38 | 1:05 | 1:47 | 1:11 |
| Aisia pasiboa | 3:22 | 2:49 | 3:03 | 2:45 | 2:46 | 2:33 | 3:10 | 2:48 | 3:05 | 2:52 |
| Joan-etorriak | 1:03 | 0:52 | 1:15 | 1:05 | 1:14 | 1:03 | 1:09 | 1:03 | 1:18 | 1:08 |

Iturria: geuk egina, Eustaten Denbora Aurrekontuen Inkestan (1993-2013) jasotako datuak oinarri hartuta.

Arestian aipatu bezala, denboraren erabilera belaunaldien arabera aztertzen bada, bat dator bizitza-zikloari buruzko teoriarekin. Zehatzago esanda, adina zein den, jarduera batzuk edo beste batzuk egiten dituzte pertsonak. Gaztaroan ikasketetan eta prestakuntzan ematen da denbora gehiago; helduaroan lan ordainduan; eta zahartzaroan gehiago gozaten da astialdiaz. DAiko datuek sekuentzia hori berresten dute, baina, hala ere, adin-talde guztietan bateratzen dira, hein handiagoan edo txikiagoan, askotariko jarduerak.

Honako taula honetan jaso da euskal herritarrek jarduera nagusietan eman duten denbora, adin-taldearen arabera.

10. TAULA. Batez besteko gizarte-denbora (oo:mm) jarduera-multzo handietan, adin-taldearen arabera. Euskal AE. 1993-2013

| | | Behar fisiologikoak | Lan ordaindua | Prestakuntza | Etxeko lanak | Etxeko pertsonen zaintza | Gizarte-bizitza | Aisia aktiboa | Aisia pasiboa | Joan-etorriak |
|---------------------|------|---------------------|---------------|--------------|--------------|--------------------------|-----------------|---------------|---------------|---------------|
| 16-34 urte | 1993 | 11:16 | 2:28 | 1:24 | 1:44 | 0:26 | 1:37 | 1:03 | 2:41 | 1:15 |
| | 1998 | 11:15 | 2:52 | 1:32 | 1:28 | 0:25 | 1:27 | 1:01 | 2:26 | 1:28 |
| | 2003 | 11:37 | 3:30 | 1:35 | 1:06 | 0:14 | 1:15 | 1:02 | 2:03 | 1:31 |
| | 2008 | 11:30 | 3:33 | 1:34 | 1:15 | 0:20 | 0:48 | 1:22 | 2:13 | 1:19 |
| | 2013 | 11:48 | 2:28 | 1:49 | 1:17 | 0:19 | 0:53 | 1:41 | 2:14 | 1:25 |
| 35-59 urte | 1993 | 11:04 | 3:40 | 0:07 | 3:11 | 0:19 | 0:51 | 1:02 | 2:44 | 0:57 |
| | 1998 | 11:10 | 4:06 | 0:08 | 2:41 | 0:21 | 0:47 | 1:00 | 2:29 | 1:13 |
| | 2003 | 11:30 | 3:44 | 0:06 | 2:40 | 0:28 | 0:49 | 1:10 | 2:20 | 1:09 |
| | 2008 | 11:09 | 4:08 | 0:07 | 2:29 | 0:42 | 0:32 | 1:04 | 2:29 | 1:14 |
| | 2013 | 11:29 | 3:25 | 0:10 | 2:35 | 0:41 | 0:37 | 1:12 | 2:27 | 1:19 |
| 60 urte eta gehiago | 1993 | 12:15 | 0:57 | 0:01 | 3:17 | 0:07 | 1:00 | 1:31 | 4:17 | 0:29 |
| | 1998 | 12:35 | 0:30 | 0:01 | 3:17 | 0:10 | 0:51 | 1:46 | 4:09 | 0:36 |
| | 2003 | 12:38 | 0:34 | 0:02 | 3:23 | 0:15 | 0:50 | 1:44 | 3:52 | 0:38 |
| | 2008 | 12:37 | 0:20 | 0:01 | 3:20 | 0:13 | 0:36 | 1:44 | 4:25 | 0:39 |
| | 2013 | 12:40 | 0:24 | 0:03 | 2:57 | 0:16 | 0:47 | 1:42 | 4:16 | 0:50 |

Iturria: geuk egina, Eustaten Denbora Aurrekontuen Inkestan (1993-2013) jasotako datuak oinarri hartuta.

Aztertutako pertsona guztiek dituzte behar fisiologikoak, eta asetzen dituzten pertsonen kopurua ez da adinaren arabera aldatzen. Horretan ematen den denbora, ordea, askotarikoa dela behatu da. Talde guztietan egunero 11 ordu baino ordu gehiagoko tasa jaso da. Dena den, adin handiagoko pertsonak denbora gehiago erabiltzen dute horretan: egunero ia 12 ordu, eta 2013an 13 ordu inguru. Azertu ditugun hogeitun urteetan, behar fisiologikoak asetzen emandako batez besteko denborak ordu erdi egin du gora adin-talde guztietan.

Lan ordainduan emandako denbora handiagoa da 35 eta 59 urte bitarteko adin-taldean: 2013an, egunero 3 ordu eta 25 minutu eman zuten. Bestalde, aldi horretan gazteenek ere denbora kopuru handia eman zuten lan ordainduan (9. taula). Pertsona helduenen parte-hartzea 30 minututik beherakoa izan da. Aztertu dugun hogeituro urteko aldian, talde guztietan jaso dira lan ordainduari buruzko aldakuntzak. Aipatu bezala, ekonomia-testuinguruaren gorabeherak eragina izan dute. Nabarmentzekoa da krisialdian gora egin duela pertsona helduagoek lan ordainduan emandako denborak.

Prestakuntzan emandako denbora, batez ere, 16 eta 34 urteko adin-taldearekin lotuta dago. 2013an, egunero 2 ordu eman zuten horretan. Horrez gain, datuek erakusten dute aztertutako aldian handitu dela adin-talde horrek prestakuntzan eman duen denbora; zehazki, 25 minutu. 35 eta 59 urte bitarteko pertsonak prestakuntzan eman duten denbora ez da esanguratsua, ezta 60 urtetik gorako pertsonak eman dutena ere. Dena den, kasu bietan prestakuntzan emandako denborak gora egin du 2008tik 2013ra. Krisialdian lan ordainduan emandako denbora txikiagotu denez, baliteke prestakuntza enplegua bilatzeko edo hobetzeko estrategia gisa erabili izana.

Etxeko eta zaintza-lanei dagokienez, lan horietan emandako denbora nabarmen handitu da 35 urtetik gorako adin-taldeetan, eta, adinak aurrera egin ahala, ez da txikiagotu. Lan horietan denbora gehiago ematen da, norik bere familia osatu, eta seme-alabak jaio ondoren. Aztertu dugun hogeituro urteko aldian, adin-talde guztietan mailaz maila txikiagotu da etxeko lanetan emandako denbora. Zaintza-lanetan emandako denborak, aldaketak izan arren, gora egin du 35 eta 59 urte bitarteko adin-taldeetan, bai eta 60 urtetik gorako adin-taldean ere. Arestian esan dugun bezala, Euskal AEn zaintzak behar dituzten pertsonen kopurua handitu da, biztanleria zahartzen ari delako, eta jaiotze-tasa handitu delako; beraz, baliteke horregatik handitu izana etxekoen zaintzari eskainitako denbora. Etxeko eta familiako lanetan eta lan ordainduan emandako denbora kontuan hartzen badugu, 35 eta 59 urte bitarteko pertsonak gain hartzen dute zamarik handiena (6 ordu eta 41 minutu 2013an). Hori dela eta, adin-talde horretako pertsonak denbora gutxiago dute aisiarako eta gizarte-bizitzarako, gainerako bi adin-taldeekin erkatuta.

Hori horrela, aisian eta gizarte-bizitzan denbora gehien ematen dutenak 60 urte eta urte gehiagoko adin-taldeko pertsonak dira. 2013an, ia egunaren laurden bat eman zuten horretan (6 ordu eta 45 minutu). Talde horretan, hain zuzen, txikiagoa da lanaren zama, batez ere, lan ordainduarena. 16 eta 34 urte bitarteko pertsonak urte berean ia 5 ordu (4 ordu eta 48 minutu) eman zuten aisian eta gizarte-bizitzan, eta 35 eta 59 urte bitarteko taldeko pertsonak 4 ordu eta 15 minutu. Oro har, aisian eta gizarte-bizitzan emandako denborak behera egin du aztertu ditugun 20 urteetan, adin-talde guztietan; batez ere, aisia pasiboan eta gizarte-bizitzan emandako denborak behera egin duelako. Denbora Aurrekontuen Inkestan aztertu ditugun 20 urteetan, gazteenek aisia aktiboan eman duten denbora baino handiagoa izan da helduenek emandakoa. Dena den, urteak igaro ahala, bi taldeen arteko aldea laburtu da, eta, 2013an ia parekoak dira emaitzak. Aisia pasiboan pisu eta garrantzi handiagoa dauka komunikabideen kontsumoak, eta denbora-erabilera hori handiagoa da pertsona helduagoen artean. Bestalde, gizarte-bizitzan emandako denbora kopurua handiagoa da gazteen eguneroko bizitzan, adin handiagoko taldeekin erkatuta.

Joan-etorrietan ere diferentziak behatu ditugu adinaren araberako analisisian: helduenak dira denbora gutxien ematen dutenak, nahiz eta aztertu dugun hogeituro urteko aldian denbora-erabilera horrek igoera handia izan duen (batez ere, 1993tik 1998ra, eta 2008tik 2013ra); izan ere, Denbora Aurrekontuen Inkestaren azken edizioan ia 20 minutu handitu da, lehen edizioarekin erkatuta. Gazteen artean, 10 minutu handitu da. Gorakada txikiena, ordea, 35 eta 59 urte bitarteko pertsonen taldean jaso da; zehazki, 6 minutu.

